

TXERRI HITZA IRAINA EZ DENEAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazuastabarrena

Jerusalem, 1161eko uda. Amalariko I.a errege kristauaren seme Balduin jaio zen. Lehen gurutzadan kristauak konkistatu eta gero, musulmanen lurraldearen bihotzean, Jerusalemgo Erresuma ez zen toki baketsua, are gutxiago Amalarikok musulmanen aurka izandako jarrera erasokorraren ondoren. Balduin aitaren koroa janzteko hezi zuten, guduetan gurutzatuen buru izateko, gotorlekuak altxatzeko, setioei eusteko eta intriga politikoei aurre egiteko. Gerora Jerusalemgo kantziler izango zen Gilen Tirokoa arduratu zen printzearen hezkuntzaz. Eta Gilen izan zen Balduin gaixorik zegoela konturatzen lehena; gorteko medikuek baino lehen, oinordekoak 9 urte zituela, ikusi zuen legenarra zuela.

Berehala hilko zela esan nahi zuen horrek XII. mendean. Gainera, gorputzeko gaitza izateaz gain, legenarra arimaren gaixotasuntzat ere jotzen zuten, gaixoak eta haren aurrekoek egindako bekaturen zigortzat. Amalariko aita mutikoak 13 urte zituela hil zen, eta Balduin IV.a Jerusalemgo seigarren errege izendatu zuten, erregeordetzaren babesean. Inork ez zuen uste tronuan luze eseriko zenik, eta errege gaixoa ordezkatzeko hautagaiei jaramon gehiago egin zieten gortean, etorkizun hurbileko trikimailu politikoetan ondo kokatuta egoteko. Oker zeuden. Handik bi urtera, 15 urte-



Jerusalemgo Balduin IV.a erregea 'Zeruetako erresuma' (2005) filmean.

SCOTT FREE PRODUCTIONS

rekin, Balduin IV.a adin nagusitasunera iritsi zen eta boterea eskuratu zuen.

Saladino ere oker zegoen. Sultan handiak errege gaztea gutxietsi zuen. 27.000 mamelukoz osatutako armada-buru, Jerusalem eraso zion. Baina Balduinek 375 gurutzatu eta 4.000 soldaduko infanteria bildu zituen, Saladini atzetik eraso zion eta sultan handia mendean hartu zuen Montsigardeko gudan. Saladinok beste hogeitun urte behar zituen hiria konkistatzeko.

Balduin IV.a lehenago hil zen, 1185eko martxoaren 16an, 24 urte zituela, itsua eta oinak eta eskuak mutilatuta. Aur-

pegia erabat desitxuratuta zeukan eta zilarrezko maskara bat erabili zuen azken urteetan. Horregatik esaten zioten "errege txerria", eta "legenduna" edo "madarikatua". Baina ez zentzu peiorati-boan. Balduin ez zen agintari oldarkorra izan, integratzailea baizik. Ibn Yubair geografo andalustarrak bere kroniketan jaso zuenez, musulmanak seguru eta bakean bizi ziren haren agindupean. Eta Isapahango imamak hitz hauek eskaini zizkion: "Gazte legendun hark bere agintea errespetatuarazi zuen printze handien moduan, Davidek eta Salomonek bezalaxe". ■



MOESGAARD MUSEUM

3.500 urteko bitxitegia

Danimarkako Moesgaard Museoko arkeologo talde batek duela 3.500 urteko bitxigintza lantegi baten aztarnak aurkitu ditu Failaka uhartean, Kuwaiteko kostaldean, Mesopotamiako merkataritza sarean irla txikiak izan zuen garrantziaren seinale.

K.a. 2100. urtetik aurrera, Omango mendietan erauzten zen kobreaken pa-

sabide izan zen. Baina K.a. 1700etik Zirepreko kobreak merkeagoak uhartearen gainbehera eragin zuen. Eskasia nagusitu zen, hiriak eta jauregiak abandonatu zituzten, eta erregeen hilobiak arpilatu. Handik mende batera merkataritza jarduera berriro suspertu zen, eta garai hartakoak dira aurkitu berri dituzten kornalinazko eta jadedzko piezak. ■